

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: [CONFLICTOS CONTEMPORÁNEOS EN TORNO A LA IGUALDAD Y A LA DIVERSIDAD DESDE LA SEXOLOGÍA](#)

Irakaslea/Profesor/a: Aritz Resines Ruiz

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Ikastaro honen helburu nagusia da sexualitatearen errealitatean trebatzea, aniztasunaren ikuspegitik eta ezagutza akademikotik. Hau da, aztergai izango dira LGBTQ+ identitateak, genero desberdintasunak, maskulinitate ereduak, norberaren eta besteen gorputzekiko harreman erotikoa eta harreman bizipenak bizitzan zehar.

Are gehiago, ez gara geldituko teoria hutsean eta eztabaidagai izango dugu ere egungo garaia, gatazka gogorrenetan sakonduz, zubiak eraikitze komunitateen artean. Hizpide izango ditugu, besteak beste, adostasunaren gaia ("Soilik bai da bai" Legearekin edo *Me Too* mugimenduarekin), sexu orientazio edo identitate "berriak" (hala nola ez-bitarra edo *Queen*), genero indarkeriaren forma guztiak (adibidez, bikotekidea kontrolatzea sare sozialen bidez), maitasun erromantikoaren eredua edo sexu heziketa, heziketa horren kontrako jarreraren aurrean.

Azkenik, hitz egingo dugu geure bizipenez eta helduaroko sexualitateaz, eta ikasiko dugu geure burua erotizatzen eta geure burua maitatzen, modu anitzago, bitxiago eta onartuago batean.

Gaitasunak/Competencias

- Sexu eta genero aniztasuna ulertzea, haren errealitate ugariak.
- Sexualitatearen eta generoaren inguruko gatazka nagusiak sortzen dituzten mekanismoak ezagutzea.
- Bizikidetzaren aldeko irtenbideak imajinatzen laguntzea.

Edukiak/Contenidos

- 1.-Sexologiarako sarrera: sexua, sexualitatea eta erotika.
- 2.-Mendebaldeko sexualitatearen ikuspegiaren berrikuspen historikoa.
- 3.-Sexu/genero zatiketa.
- 4.-Begirada interseksionalaren aplikazioa (etnia, desgaitasuna...).
- 5.-Feminismoak eta maskulinitate berriak.
- 6.-LGTBIQ+ mugimendua.
- 7.-Espainiaren eta Euskal Herriaren kasuak.
- 8.-Sexu askatasunaren inguruko polemikak:
 - 8.1.-Genero indarkeriaren kontrako legea.
 - 8.2.-"Soilik bai da bai" legea.
 - 8.3.-"Trans*" legea.
- 9.-Maitatzeko era anitzak.
- 10.-Aniztasun erotikoa.
- 11.-Sexualitatea helduaroan.

Metodologia/Metodología

Gure metodologia oinarritzen da zurrumurruen kontrako agente gisa dugun prestakuntzan. Asko lagundu digute Xabier Aierdik eta Julia Shershnevak (Ikuspegin aritutako UPV/EHUko irakasleak). Gako hauetako asko datoz Eusko Jaurlaritzak 2012an argitaratutako "Eten zurrumurrua" gidatik, Aierdik bere prestakuntza saioetan emandako gakoekin batera.

- Desinformazio handi batetik sortutako giro batean, sexu heziketarik gabeko garai luzeen ondoren, gure egitekoa da erakustea, sexualitatearen inguruko aurreiritzi eta estereotiporik gabe.
- Umoretik beti, alde batera uzten ditugu gehiegikeriak, egia kontatzeko. Barre eginez gure ohiko hainbat nahasteren inguruan, ezagutza akademikoa lantzen dugu, prebentzio egokia helburu.
- Une oro, geure bizi esperientzietan oinarritutako gogoeta bultzatzen dugu, eta esperientzia berriak azaltzen ditugu ikasgelan, kontuan hartuz beti pertsona bere osotasunean, haren adin edo gaitasun fisikotik harago, adibidez.

Ondorioz, klase guztietan, erabateko lehentasuna du hainbat jatorri etnikotako, sexu-orientazio/identitatetako, genero orientaziotako pertsonen edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen adierazpenak. Irakasleak berak bere esperientziez hitz egingo du. Hori horrela, helburua da ahotsa ematea normalean ahotsik ez duten pertsonen eta bigarren maila batean uztea normalitatean kokatuago dauden pertsonen espektatibei.

Bibliografia/Bibliografía

Soble, Alan (2006). *Sex from Plato to Paglia. A philosophical encyclopedia*. Westport: Greenwood Publishing Group argitaletxea.

Amezua, Efigenio (2003). *El sexo, historia de una idea*. Madril: Revista Española de Sexología 115-116 zk. [1-237 or.].

Bauman, Zygmunt (2004). *Modernidad líquida*. [Itzulpena gaztelaniara: Mirta Rosenberg]. Madril: Editorial Fondo de Cultura Económica de España (2000. urtean argitaratutako lan originala).

Becker, Howard (2009). *Outsiders. Hacia una sociología de la desviación*. [Itzulpena gaztelaniara: Helena Aixendri]. Buenos Aires: Editorial Siglo XXI (1963. urtean argitaratutako lan originala).

Bloch, Iwan (1909). *The sexual life of our time*. [Itzulpena ingelesera: M. Eden Paul]. Londres: Rebman Company argitaletxea (1907. urtean argitaratutako lan originala).

Botella, Juan, Cañeque, Carlos eta Gonzalo, Eduardo (1994). *El pensamiento político en sus textos, de Platón a Marx*. Madril: Editorial Tecnos.

Butler, Judith (2007). *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*. [Itzulpena gaztelaniara: María Antonia Muñoz]. Bartzelona: Editorial Paidós (1990. urtean argitaratutako lan originala).

Chesterton, Gilbert Keith (1998). *Ortodoxia* [Itzulpena gaztelaniara: Augusto Assía]. México D.F.: Editorial Porrúa (1908. urtean argitaratutako lan originala).

Chomsky, Noam eta Foucault, Michel (2006). *La naturaleza humana: justicia versus poder. Un debate* [Itzulpena gaztelaniara: Leonel Livchits]. Editorial Katze Editores. (1974. urtean argitaratutako lan originala).

Cruz, Carlos, de la (2005). *Expectativa de diversidad: ideas y dinámicas*. Madril: Consejo de la Juventud de España.

Empírico, Sexto (1993). *Esbozos pirrónicos* [Itzulpena gaztelaniara: Antonio Gallego]. Madril: Editorial Gredos (lan originala k.a. 120).

Fernández de Quero, Julián (2011). *Sexualidad masculina a examen: claves para conocerla mejor*. Madril: Editorial Bubok Publishing.

Foucault, Michel (2006). *Historia de la sexualidad 1, 2, 3 y 4* [Itzulpena gaztelaniara: Ulises Guiñazú]. Madril: Editorial Siglo XXI. (1976, 1984 y 2018. urteetan argitaratutako lan originalak).

Fourier, Charles (1975). *El nuevo mundo amoroso* [Itzulpena gaztelaniara: Daniel de la Iglesia]. Madril: Editorial Fundamentos (1967. urtean argitaratutako lan originala).

Gómez Zapiain, Javier (2013). *Psicología de la sexualidad*. Madril: Alianza Editorial.

Henderson, Paul (1998). *The construction of orthodoxy and heresy*. Albany: State University of New York Press (1948. urtean argitaratutako lan originala).

Hirschfeld, Magnus (1935). *Sex in Human Relationships* [Itzulpena ingelesera: John Rodker]. Londres: John Lane The Bodley Head argitaletxea (1935. urtean argitaratutako lan originala).

Hössli, Heinrich (1996). *Die Männerliebe der Griechen*. Berlin: Glarus argitaletxea (1836. urtean argitaratutako lan originala).

Kennedy, Hubert (2002). *Karl Heinrich Ulrichs. Pioneer of the Modern Gay Movement*. San Francisco: Peremptory Publications argitaletxea.

Landarroitajauregi, José Ramón (2016). *Sexorum Ciencia Vulgata*. Valladolid: Editorial Iesus.

López, Félix (1989). *Para comprender la sexualidad*. Lizarra: Verbo Divino argitaletxea.

Marañón, Gregorio (1930). *La evolución de la sexualidad y los estados intersexuales*. Madril: Editorial Ediciones Morata.

Marcuse, Herbert (1983). *Eros y civilización* [Itzulpena gaztelaniara: Juan García]. Madril: Editorial Ariel (1955. urtean argitaratutako lan originala).

Masters, William, Johnson, Virginia eta Kolodny, Robert (1996). *La sexualidad humana* [Itzulpena gaztelaniara: Manuel Sacristán]. Bartzelona: Editorial Grijalbo (1987. urtean argitaratutako lan originala).

Reich, Wilhelm (2010). *La función del orgasmo: el descubrimiento Orgón y problemas económico sexuales de la energía biológica* [Itzulpena

gaztelaniara: Marta Valero]. Madril: Editorial Paidós. (1942. urtean argitaratutako lan originala).

Rodríguez, Hildegart (1931). *La revolución sexual de la juventud*. Madril: Editorial Ediciones Morata.

Rubin, Gayle (1989). *Reflexionando sobre el sexo: nota para una teoría radical de la sexualidad*[Itzulpena gaztelaniara: Silvia Oreja]. Hemen: Vance, Carole, Placer y peligro (113-190. or.). Madril: Editorial Revolución. (1984. urtean argitaratutako lan originala).

Sáez, Silberio (2010). *Sexo básico*. Madril: Universidad Camilo José Cela.